


Einsteinen berri euskaraz, 1923an

Joana Mendiburu Garaia

Elhuyar

Ikerketa zientifiko andanaren berri ematen da aldizkari espezializatuetan, egunkarietan, Interneten... Bakoitzak bere jakinduria eta jakin-minaren arabera hautatzen du informazio-iturria, baita hizkuntza ere. Gaur egun, zientzialarien hizkuntza ingelesa izan arren, gai orokorrak edozein hizkuntzatan daude eskuragarri. Baina kontuak oso bestelakoak ziren XX. mendearen hasieran, eta horren adibide da eskuartearen dugun 1923ko artikulua.



ARTXIBOKOA

Albert Einstein (1879-1955) fisikari alemaniarra zientzia modernoaren berritzaile handienetako bat izan zen eta irauli egin zuen unibertsoaren kontzeptua.

Apaltasuna nagusi

Mendearen hasieran, gure garaiarekin alderatuta, ikerketa zientifiko gutxi eta hedabide gutxiago zegoenez, ez zen ohikoa zientzialarien lanaren berri jasotzea; eta zer esanik ez euskaraz! Horrek ez du esan nahi garai hartan ezer egiten ez zenik, ezta gutxiago ere, baina Einsteinen teoriaren berri ematen duen garai hartako artikulua merezi du aipamen berezi bat.

Zorionez eskuratutako artikulua 1923ko urtarrilaren 5eko *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen, Einsteinek bere teoriak eta aurkikuntzak plazaratu zituen garaian hain zuzen.

Idazlea ezezaguna da, eta zientzialaria ez zela argi uzteaz gain, kontu handiaren tratatzen du gaia. Hasieratik idazleak erakusten duen apaltasunak agerian uzten du gaiari zion errespetuaz eta era honetako artikulua euskaraz idaztea ez zela ohikoa. Hala ere, Einsteinen teoriak unibertsoaren teoriak goitik behera

aldatu eta zientzialarien arteko tira-birak piztu zituenez, euskaraz horien berri eman beharra sentitu zuen nonbait.

Artikulua honela hasten da: "Einstein'en Ortzeatzako bururaketa berriak zer esan asko eman du ortziztilarien artean. Gu ortziztilariak izan ez arren (ezta zantzirik ere) zerbait esatera beartu gera, ez arren ustariak (teorias) ontzat ala txartzat emateko, aien berri euskeraz axial-axaletik emateko bazik. Euskeraz, esan dugu, or doa, gaizki esanak barkatu ta obeak asmatu".

Einsteinen teorian bete-betean sartu aurretik ere, honela hasten da: “neronek ulertzen naiko lan ta ingururleak gure bidez gehiago ere bai”.

Lekukotasun zuzena

Einsteinen teorien berri ematea da artikulu horren lehentasuna, baina Galileoren bizitzaren errepaso eginez eta bere aurkikuntzak azalduz hasten da. “Galileo-ren esaria azaldu dezagun aurretik. Galileok dio: Igindar-arauak (leyes mecánicas) eraketaren (sistemaren) igi-egokerarekin zer ikusi ez dute, igitzea zezenkakoa eta berdina danean”.

Gero, Einstein garaikidearen teorien berri ematen du. Albert Einstein (1879-1955) fisikari alemaniarrek irauli egin zuen unibertsoaren kontzeptua, eta hori testuan argi eta garbi azaltzen da. “Ustari berri oiek dirala-ta Einstein’ek aspaldiko yakidia barru-barrutik astindu du, aldia ta utsune-zabaleko zeartotasunezko ustari zarrak ankar-gora bota ditu; bai oraindanoiko Igindarriztia, bai uskaiaren (utsune-gai, eter) izatasuna, bai Euklides-en (I) Daneurtiztia (Jeometria), bai Newton-en Ortze-erakartasun (atracción universal) arauak, guztiak ezereztu ditu”.

Einsteinek 1916an argitaratu zuen grabitatearen eredu berria ematen zuen

Erlatibitatearen Teoria Orokorra. Hor, denbora eta espazioaren kontzeptio berriak eta masa eta energiaren arteko erlazio estua ($E=mc^2$) jaulki zituen. Horren ondorioetako bat da, masak espazioa kurbatu egiten duela eta argia bera ere, masa handiko gorputz baten ondotik iragatean, ibilbide zuzenetik desbideratu egiten dela.

“Einsteinen teoriei buruzko XX. mendearen hasierako artikulua aipamen berezia merezi du”

Honela azaltzen du teoria hori mende hasierako testuak. “Beste arrigarrizko gauza askoren artean Einstein’ek auxe esan du, argia aztuna dala ta eguzkiaren ondotik izarren argia igarotzean, eguzkiak duan erakar-indarrarekin argi ori alderatu egiten zaiola. Gaez eguzkia gure atzetik dugunean, aurretik eguzkiaren erakar-indarrik ez dala-ta, zuzen datoz argi-izpiak; egunez, berriz,



Einsteinek amaren eraginez bibolina ikasi eta zaletasun handia izan zuen bizi osoan.

argi ori oker eginda dator. Ta guk izarren beren argiaren bidez ikusten baditugu, ta argi-izpiak oker baldin badatuz, guk izarren okerreko tokian ikusten ditugu”. Hori frogatzeko, astronomoek 1919ko eta 1923ko eklipseen aurreko gauetan eta eguzki-estaltzean ortziaren argazkiak atera zituzten. “1919garren urteko eguzki-estaltzean, orain Agorrean izan dan asmo ori beraxe izan zan. Ta ortze-argazkiak egunez atera ere bai. Einstein’ek aurrezti, 13 izarren toki berriak adierazi zituan. Baita arek esan bezela gertatu. Baño ortziztilariak gertari ori bestela izan zala-ta gertatu zala esan zuten”.

Artikulu amaitzeko tonua ere hasierako ber-bera da.

“Bukatzer goaz. Ez goaz gu gure adiskide batek ziona esatera, mundu oñtan egi bakarra omen da, guztia gezurra dala.

Guk gutxiago esango dugu: guztia-edo arauzkoa baldin bada, zearorik ez bada Einstein berberaren ustariakor nobait ibiliko dirala.

Azken oarra. Ez gera gai-zailzaileak. Bein-bateko idazten dugula ta oraindi-oraingo arazo berria dalako, ausartu gara. Ala ere, barkatu”. □



Albert Einstein Charlie Chaplinekin.